

...eta **kitto!**

779 zkia. 2011-X-21

ASTEKARIA

TOKIKOM

Udazkenerako XIX. MUSIKALDIA soinu banda



Burbuila **batean ez bizitzeko**

J. Etxeberria, 13



— PROBA EZAZU
DOAN

Beritu
Zentro Optikoa
943 700 230

R.P.S. 5508



IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...

irribarrerik onena lortuko duzu!

...eta atera egiezu etekina hartz-zuriketan ditugun
PROMOZIO BEREZIEI.

Zatoz eta KONTSULTA egin!


...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu itzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.**



- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.
- Bezeroaren
beharretara



elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Tolosako Ekinbide Etxea

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*)k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten enshera

HOZKIL.- Beti hotzak dagoena. Gaztelarazko 'friolero'. "Oso hozkilla ei dabil Ameriketatik itxuli dan ezker".

HOZKIRRI.- Hotzikara. "Jaiki ba, ta indar motelak, nahieza, hozkirrixa; txakur eztula, ospelak ta surrian dindirrixa". Hotza, freskoa. "Egualdi hozkirrixa gaurkua".

HUN.- Hezurrek barruko aldean izaten duten bigununea, hezurmuina. Gaztelarazko 'tuétano'. "Hunetaraiñok sartu jata hotza".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-maillez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Ez ongizate Estatua, ezta merkatuaren espirtu ikustezi-
na: ez bata ez bestea ez dira gai izan bizitzen dihardu-
gun krisi handi honetara ekarri gaituen giza iruzur oro-
korra saihesteko. Konponbide bakarra herriarrek osatu-
tako giza sareetan aurki daiteke, azken hauek arduratsu
jokatu eta mugimendu guztiak zaintzen badituzte"


(Pako Garmendia, Teoria Politikoan katedratikoa)

"Espainian ikasleen %65 unibertsitatera doa eta %35
IH-ra; horrek dakar frustratutako unibertsitariak ego-
tea, lan mileuristetan. Alemanian IH-a ere desberdina
da: bi urteko iraupena du eta denbora horretako bi he-
renak enpresetako praktketan ematen dituzte eta bes-
te herena teorikan. Espainian alderantziz egiten da"


(Carsten Moser, Alemaniako Merkatalararen presidentea Espainian)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

IKASTARUA BOLUNTARIKUENDAKO


Boluntariak eta irabazi asmorik gabeko alkartietako kidiendako ikastarua antolatu dabe, "Komunikaziñua alkartietan. Ba al dakigu komunikatzen?" izenburuari jarraituta. Helburua erakundiaren gaineko hausnarketia bultzatzea eta erakundian bertan zer eta zelan komunikatu bihar dan erabagitzen laguntzia da. 12 ordu izango dira (azaruak 8, 15, 17 eta 18xan, 17.30xetatik 20.30xetara, Portalean).

HAUTESKUNDIAK

Hillebete baiño gitxiago falta da hauteskunde egunerako eta alderdi politikuak euren hautagaixak eta bestelakuak ezagutzera emoten dihardue egunotan. Amaiur taldiak Senaturako presentau daben zerrendan 2.a Alberto Unamunzaga eibartarra da. Bestalde, egunian bertan botua emoterik ez dakenendako posta bidezko bozkaren aukeria badaguala gogorarazi nahi detse herritarreri eta tramitiak egitteko laguntasuna be emoten dabe.

Adiñekuen bizipenak ikasgeletara

AHOTSAK.COM WEBGUNIAN JASOTAKO MATERI-XALA HERRIKO ESKOLE-TAN ERABILTZeko asmuari jarraituta, 2010. urtiar geroztik Badihardugu Euskara Elkarteak proiektu pilotua daka martxan, Udalarekin lankidetzan. Holan, azken urtietan Eibarren jasotako ahozko testigantza interesgarriena aukeratu eta sailkatu dittue Badihardugukuak, gure nagusixen ahotik zuzenian hartutako kontuak hainbat ikastetxetan erabiltzeko. Oñ arte behintzat ekimenarekin bat egin daben eskolak San Andres herri ikastetxia, Aldatze eta J. A. Mogen ikastolia izan dira.



Eibarren ez eze, Euskal Herriko Ahotsak proiektuan jasotako lekukotasunak beste herri batzuetako eskoletan be hasi dira erabiltzen; bestiak beste Aretxabaletan eta Eskoriatzan iaz hasi ziran materi-xala klasian erabiltzen eta "ahozkotasuna eta memori-xa historikua umien artian zabaltzeko or-

duan oso emaitza onak izaten diharduela" diñue projektuko arduradunak. Eibarko proiektuak Schindler enpresaren batesa eta bultzadia jaso dittu.

Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren helburua Euskal Herriko ahozko ondaria eta herritarreri berbetak bildu eta herdatzea da eta horretarako adiñeko jendiarekin alkarrizketak egitten dittue, gero www.ahotsak.com webgunia nahi daben jende guztiarendako eskuragarri ipintzeko. Oin momentuan Eibarko 76 hizlariren testigantzak dagoz jasota, 527 grabaziñotan, eta 417 bideo-pasarte ikusteko moduan dagoz.

Gernikako akordixuaren aldeko agerraldixa

MARTITZEN ARRATSALDIA ERRETRATUAN IKUSTEN DITUZUENAK AGERRALDI PUBLIKUA egitiñ eben Untzagan, Gernikako manifestuaren aldeko jarrera erakutsi eta herritarreri bixarko Bilbon deittuta dagan manifestaziñuan parte hartzeko gonbidapena egiteko. Bixarko deittuta dagan manifestaziñoa nazionala 17.30xetan abiatuko da, "Herritarrok ere konponbidea nahi dugu" esaldixari jarraituta (izena emon dabenendako antolatu dan autobusa Ego Gaiñetik urtengo da 16.00xetan).

Aste honetako agerraldixan irakorri eben manifestuak jasotzen dabenez, "Euskal Herriko gizartiaren zatirik haundixena bizi dugun gatazkarekin amaitzeko konponbide demokratikua nahi dau, bakia nahi



dogulako. Baiña bakia eta normalizaziño politikua horren garrantzitsuak izanda, ezin dogu iñoren esku laga berau lortzeko arduria, herritar guztiak prozesu horretan parte hartu bihar dogu". Horregaittik, eta "mailla nazionalian zeitiñ herri maillan aro politiko barrixan gagozen honetan", Gernikako akordixuaren aldeko Eibarko taldia osatzen daben agente sindikal eta sozialak jende guztia bixar Bilbora juatera animatzeko deixa egin dabe.

Eibarko 36 odol-emotallieri esker ona

DOMEKAN GIPUZKUAKO ODOL-EMOTALLIAK URTEROKO HITZORDUA EUKI EBEN, 25, 40 eta 50 aldittan odola emon daben laguneri omenaldixa egitteko. Azken urtietako martxiari jarraituta, Elgetan batu ziran Debagoiena eta Debabarrenako odol-emotalliak, hango parrokiaren mezia entzun eta, jarraixan, Espaloia kafe antzokixan aurtengo omendueri insigniak eta diplomak banatu eta alkarrekin bazkaltzeko. Omendu zittuenen artian, erretratuan ikusten dittuzuen 36 eibartarrak egon ziran. Domekan batutakuak eskuzabaltasun haundixa nahikua eta soberan erakutsi badabe be, odol-

emotallien alkartekuak oindiok be jende gehixagoren premiñian daguezela gogoratzeko aprobetxau nahi izan eben ekitaldixa. Izan be, gure probintziako odol-erreserbak bere mailla egokixari eusteko Eibarren 362 donante barri animatzia bihar da, honetan be beste kontu askotan pasatzen dan moduan errelebo faltia dago eta. Emotaille izateko bete biharreko baldintzak oso sinpliak dira eta odol-ateratziak herrian bertan egitten dira, hamabostian behin, Pagaegi kalia alkartiak dakan lokalian.



Hurrengo hitzorduak urriak 27xan, azaruak 10ian eta 24an eta abenduak 15ian eta 29xan izango dira, 18.30xetan.

Gidarixa hil da zubitik behera erorita

EGUAZTEN GOIZIAN ISTRIPUA GERTATU ZAN AP-8 AUTOBI-DIAN, EIBARREN, AZITTAIN GAIÑETIK DOIAN zubixan eta ez-beharran nahastutako kamioiaren gidarixa hil egin zan. Kamioia autopistako zubitik behera, 30 bat metroko altueratik behera Ego errekaraiño, trenbide ingurura jausi zan, 12.20xak aldera Herrizain-go Saillak jakiñarazi ebanaren arabera. Donostiarako norantzan zoian garraiolariak esnia zeroian kamioian eta, istripua gertatu eta segiduan, larrialdi zerbitzuak laguntzeko ailegau ziranian oindiok bizirik eguan, baiña handik gitxira istripuaren ondorioz izandako zauri larriengaittik gidarixa hil egin zala emon eben aditzera.



Istripu asko izaten da Azitain gaiñeko zubixan, batez be eurixa danian. / MIKEL LARREATEGI




Zaer Motorrekuen alkarretaratzia

AURREKO ASTIAN, ASTE-LEHENIAN APALATEGI KALEKO ZAER MOTOR ENPRESAREN PARIAN egindakua-
ren bidetik, eguazten goizian atzera be alkarretaratzia egiñ eben LAB sindikatuak deittuta, ordezkariaren berbetan "LAB sindikatuak enpresako hauteskunde sindikaletarako presentau eban hautagaxak ugazabaren aldetik jasotzen diharduen jazarpen sindikala" salatzeko. Sindikatuak aditzera

emon dabenez, "hautagai modura presentau aurretik urtiak emon dittu bihargiñak enpresan eta oiñ arte ez da sekula beraren gaiñeko kejarik egon". Halanda be, hauteskundiak pasauta eta "antolaketa arrazoiak" aitxakiatzat hartuta, enpresako buruzagixak bihargiña kaleratzia erabagi eban. Enpresak atzera be bihargiña onartzia eskatzeko egitten daben bigarren alkarretaratzia izan zan eguaztenekua.

anzorik anzo



Aparkalekuak kendu eta espaloiak zabalaguak egiteko asmua dago. / SILBIA HERNANDEZ

Estaziño kalia erdi-peatonala izango da

Udalak azaldu dabenez, datorren urterako Estaziño kalia erdi-peatonala izateko moduan izango da: tren estaziñuaren eta Ibarikutze bittarteko zatixak hartzen di ttuan 120 metrueri eragingo detse aldaketiak eta helburua bertan duguazten denderi mesede egittia da, jende gehixago bertan ibillitta oin baiño gehixago saltzia espero dabelako. Aldaketa egiteko erabilliko daben presupuestua 418.000 bat eurokua da eta merkataritza bizibarrizteko helburua dakan Merkagune programari jarraituta egingo dabe. Kalia oiñezkuendako erosuagua izateko, bestiak beste kalia-
liaren ezkeraldian gaur egunian duguazten aparkatzeko tokixak kendu egingo di ttue eta, horri esker, eskumako aldeko espaloia-
ri 2'60 metroko zabaleria emongo detse; ezkerreko espaloiak 4'15 metroko zabaleria eukiko dau eta errepidiak 4'10 metrokua. Argiztapena barritu eta bankuak, zaborrontzixak eta bestelakuak ipiñitta biribilduko dabe proiektua.


eibar kaleka

Arrate auzua

Eltzartzagatik hasi eta Saturixoraiño doiazten terrenuak osatzen dabe bailladia, Zubiaga eta Argiano errekatxuen eta Arramendi inguruko lurak barne. Ego Ibarrik jasotakuaren arabera, "Arrate Ballia izango da, Agiñaga baillariakin batera, basarri eta basarritarren mundua hobetuen gorde daben auzua".

Pegora kopurua: 38

Erroldatutakoak: 97




asteko
100.000
datua

euro aurreratzea ikusten dau Udalak aurtengo faktura elektrikuan. Oin dala urte bi hasi zan Udala hiru faroletik bat amatatzen goizeko 01.00etik 06.00ak arteko tartian eta horrek bakarrik aittatutako aurrezpena dakar. 2009xan Udalak 573.000 euro ordaindu bihar izan zittuan argixarengaitik.

Udal zergak %3 igoko dittue

ASTELEHEN GOIZIAN EZ OHIKO UDAL BATZARRIAN DATORREN URTERAKO UDAL ZERGAK 2010eko KPI-ari jarraituta %3 igotzia erabagi eben, PSE-EE eta PPko ziñe-gotzixen aldeko botuekin, EAJ-koen abstenzifiarekin eta Bil-duko ordezkariaren kontrako botuekin. Neurrixa urtarrillaren 1ian sartuko da indarrarian eta udal zergeri batatz beste eragingo detse, baiña hortik aparte, kasu konkretu batzuetan, igoeria haundixagua izango da. Adibidez, Kirol Patronatuko jardue-ra batzuetan igoeria %5ekua izango da abonauendako eta %10ekua abonauak ez direnendako. Eibarko Udalak zergeri esker 12 millioi euroko diru-sarrerak jasotzia dauka aurreikusitta, aurrekontu osuaren %38.



Kultur Arteko Topaketia

DOMEKAN PERTSONA GUZTIEN KULTUR ARTEKO TOPAKETIA OSPATUKO DA EIBAR ETA ERMUAN, Harresiak Apurtuz alkartiak antolatutako ekimenarekin. Topaketia Eibarko Udaleko Inmigraziño alorraren eta Eibarko etorkiñen alkartiaren laguntasunarekin gartuko da, 10.30xetan hasi eta bazkaltzeko ordua ailegau bittartian. Ordu horretan Kultur Arteko Topaketiari ekiteko Eibarko erakunde sozialeri ongi-etorrixa egingo detse Untzaga plazan. Jarraixan, 11.00ak aldera, Eibartik abiatuta Ermuraino juango dan kalejira erre-



bindikatibua hasiko da. 12.30xak aldera Ermura ailegatzia dago aurreikusitta eta orduantxe Ermuko erakunde sozialeri ongi-etorrixa eskintzeko asmua dake. Jarraixan manifestua

irakorriko dabe eta horren ostian, 13.00ak aldera herri-bazkarixa hasiko da, Ermuko San Pelaio plazan. Ekitaldixak ehundaka lagun alkartzia espero dabe antolatzailliak.

Bularreko minbizixaren kontrako dantza maratoia

EGUAZTENIAN BULARREKO MINBIZIXAREN KONTRAKO NAZIÑOARTEKO EGUNA GOGORATU ZEN eta, horren harira, Eibarko El Corte Inglés-ak Dantza Maratoia antolatu dau bixar zaturako, 11.30xetan hasitta, merkataritza-guneko atari nagusixan.

Antolatzailliak andren alkartiak zein herritarrak orohar ekimenian parte hartzera animau nahi dittue, gaixotasunari aurre egitteko orduan danak alkarrekin jarduteko helburuarekin. Dantza maratoiaren hasierian parte-hartzaile guztieri kamiseta bana oparituko detse, oroigarri modura. Bertaratzen direnak hainbat dantza-estilo dantzatzeko aukeria izango dabe, TX4 Fitness-en eskutik juango dan saiuan, bestiak


beste salsa, merengea, body-jam eta beste hainbat eritmo probauta. Parte hartzeko interesa dakenak Eibarko El Corte Inglés-eko Kirol Saillian (2. pisuan) emon biharko dabe izena eta horrekin nahikua izango da, ez da aparteko beste ezer egin bihar.



Bixarko Dantza Maratoia El Corte Inglés-eko merkataritza-gunian egingo da. / SILBIA HERNANDEZ

50 urtekuen jaixa

ZAPATUAN ONDO BAIÑO HOBETO EMON EBEN EGUNA ERRETRATUAN IKUSTEN DITTUZUE-NAK, aurtan 50 urte bete edo beteko dittuela ospatzeko antolatutako jaixan. Eguardi partian danak alkartu, taldiaren erretratua etara eta, jarraixan, trikitalari eta guzti, tabernatik-taberna firin-faran ibilli ziran, umore onian, Iruki sagardotegixan bazkaltzen hasteko ordua ailegau bittartian. Baiña jaixak bazkalostian segidu eban eta hor ikusten dittuzuenetako askok ordu txikitana amaittu eben ospakizuna.




Bada hillebete pasatxo gripiaren kontrako txertua ipintzeko kanpaiña hasi zala eta oindiok be urria amaittu bittartian bakunia ipintzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak. Udazkenaren amaiera partian eta negua hastian agertzen dira gripe kasu gehixenak eta, horregaittik, gaixotasunari aurre egitteko preparatzen dihardue asko.

Gripiaren aurkako txertua hartzen dozu?



PATXI MURGOITIO
60 urte
aurre-jubilaua

Ez, ez dot sekula bakunarik hartu. Ez naiz arrisku-taldietan sartzen eta, horregaittik, txertua ipintzeko premiñarik ez dakat. Nequak ondo pasatzen dittut, erregular! Lantzian behin mokuak-eta eukitzen dittut, baiña ezer larririk ez; ez dot arazo haundirik eukitzen normalian.



AMALIA CAVÍA
77 urte
etxeoandria

Bai. Oin tratamendu bat segitzen nabil eta hori amaittu arte ez bakunatzeko esan deste. Bestela, urtero-urtero hartzen dot txertua, baiña aurretik be ez dot sekula gripe edo katarorik euki. Egixa esateko, Seguridade Soziala Jaungoikua da neretako, ez dakizue zelako ondo tratatzen naben!


JOSE NEIRA
77 urte
jubilaua

Aspaldittik dakat txertua hartzeko ohitturia. Harrezkero ez dot hartu griperik edo antzerakorik; hortaz, esan neike gripiaren kontrako bakuniak mesedia egitten destala, neri bai behintzat.



MARIA RUIZ
67 urte
etxeoandria

Bai, azken hiru urtiotan txertua hartu izan dot. Ez dot somatu kontrako erreakziñorik eta ez dot griperik euki be. Gaiñera, alergi-xia dakat eta lehenago, lantzian behiñ, hartu izan dot griperen bat edo beste. Beraz, mejorixia igarri dot txertuarekin.



integritatea

Debabarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA

Egonaldia San Juanen begiradapean

Urriaren erdian bagaude ere eguraldi ederra egiten du, eguzkitsua eta 20 bat gradu. Horrelako giro politean, San Andres egoitza aurreko bankuetan jarrita pasatzen dihardute arratsaldea nagusiek eta bisitan etorritako senitartekoek. Negua ez da urruti eta hotza heldu aurretik horrelako egunak kalean egoteko aprobeztatu behar dira. Gustora ikusten zaie, barre batzuk entzun daitezke eta baita biren arteko eztabaida ere. Asteburuko foball neurketaren gainean dihardute berbetan.


Erizainak hara eta hona dabilta eta eroso ikusten dira nagusiak egoitzan. Horren errua, zentzu handian, orain dela urte bi amaitutako obrek daukate. **Javier Osa San Andres Egoitzaren zuzendariaren** berbetan, *“ia hotel baten antzeko logelak ditugu orain”*. Lehen lau pertsonen artean komun bat partekatzen zuten, orain, ordea, biren artean bat eta, kasu batzuetan, bakoitzak bere komuna dauka. Pisu bat gehitu zitzaion egoitzari eta 70. hamarkadaz geroztik zutik zirauen edifizioa guztiz berritu zen.

‘Zulo’ ekonomikoa

Egoitza mantentzea, arlo ekonomikoa, ez da erreza. *“Garestiak gara”*, dio Osak. Urtero Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta egoitzan dauden nagusiek diru-kopurua ipintzen duten gastuak estaltzeko, *“baina ez da nahikoa eta zuloa dago urtero”*. Eta nork betetzen du zuloa? *“Orain arte Udalak, baina euren aurrekontua ere larri dago eta Foru Aldundiarekin egingo dute berba”*. Egoitzaren jabetza Udalarena da, baina bertan ingresatuta daudenak menpekoak direnez, Foru Aldundiaren esku dago zerbitzu horiek eskaintzea.

Javier Osaren iritziz honelako zerbitzu publikoek ekonomikoki

‘zuloak’ sortzea arrunta da, “baina horretarako daude zergak. Ezin duguna egin da soilik zerbitzuak eskatzea, ondoren zergekin horiek ordaindu behar ditugu”. Pribatizazioa aipatzen du Osak, “hori da azken aldian ikusi den tendentzia horrelako egoitzetan”. Bere berbetan, baten batek hartu behar du bere gain gastu hori, eta horretarako



akordio batera iritsi behar dira Udala eta Foru Aldundia.

Igo ez den gastu bakarra langileen soldatena izan da. *“Mantendu edo jaitsi egin dira”*. Egunean zehar nagusiekin egoitzan gurutzatzen diren sendagile, erizain, erizain-laguntzaile, garbitzaile eta sukaldariek egiten dute lan egoitzan. Osaren berbetan, *“nahikoak”*. Eusko Jaur-laritzak zehaztutako zerbitzu-kartaren %15-20a baino langile gehiago dago egoitzan eta zu-



Eguraldi ona aprobeztatzen dute nagusiek egoitzako patioan. / EKHI BELAR



Azken aldian egindako obrek instalazio guztiak berritu ziren. / EKHI BELAR

gauza egiten dituzte: nagusiak garbitu, euren arropak garbitu, janariak eman, osasuna zaindu, eguna pasatzeko taldeak egin eta ekintza psikosozialak antolatu, adibidez”. 07.30etatik gaueko 22.30etara mugimendua egoten da egoitzan.

Egunerokotasunean ordu horiek egoitzan pasatuta, nagusien eta langileen arteko harremanak sendoak izaten dira, *“eta gogorra egiten zaigu baten bat faltatzen den momentuan”*. Joaten denaren lekua, hala ere, berahala betetzen du beste nagusi batek. *“Ez dakigu nolako itzarote-zerrenda dagoen, hori Foru Aldundiaren eskumena baita, baina hemen lekua egiten denean hara deitzen dugu eta berehala betetzen da hutsunea, beraz, uste dugu luzea dela zerrenda”*, dio zuzendariak.

Egoitzan sartzeko 60 urte izan behar dira gutxienez, baina beste baldintza batzuk ere bete behar dira: Gipuzkoan jaiotakoa izatea, azken urte biak Gipuzkoan erroldatuta egotea, edo azken 10 urteetatik bitan Gipuzkoan erroldatuta egon izana eta senideak Gipuzkoan egoteagatik eskaintza egitea.

Gaur egunean, *“denak edo ia denak”* eibatarrak dira egoitzan. Kaperan dagoen San Juanen irudiak (oraindik Sanjuanetako zapia duenak) ondo daki hori.

Bostondik (Amerikako Estatu Batuak) Europara etorri da Jeremy Carter-Gordon kontinente honetako espata-dantzen gainean ikerketa egitera. Bidean Eibarren egin zuen egonaldia eta hiru aste izan genuen gurean Kezka Dantza Taldekoekin batera. Bere bidaiak, hala ere, aurrera doa eta Ingalaterran aurkitzen da orain. Bere blogean jarraitu diezaiokezue: starofswords.wordpress.com

JEREMY CARTER-GORDON, etnokoreologoa:

“Euskal espata-dantza oso berezia eta ederra da!”

- Etnokoreologoa zara, baina... zer da hori zehazki?

Etnokoreologia dantzaren antropologia-ren ikasketak hartzen duen izena da. Etnokoreologok aztertzen dute nola dauden erlazionatuta dantzak eta giza-kultura.

- Zer ari zara egiten Europan zehar?

Europako espata-dantzak ikertzen dihardut. Inor aurki ez daitezkeen dantzan egiteko moduak aurki daitezke Europan. ‘Hilt and point’ (Espata-buru eta punta) bezala ezagututako espata-dantzak dira, eta hain ezberdinak diren tradizio hauek sinboloen bitartez daude lotuta: izarrak, espatak, zirkuluak eta antzerako dantza-mugimenduak. Bilatu nahi dut dantza hauek, hasiera batean euren artean erlaziorik ez dutela ematen dutenak, zergatik garatu diren paraleloki eta zergatik dituzten antzerako sinboloak. Tradizio ezberdinetako dantzariekin dantzatzu eta hauek ikusiz ondo dokumen-



tatu nahi dut eta, horrela, dantzak ikasi.

- Zein da zure bidaiak plana?

Frantzia hasi eta, ondoren, Italiara joan nintzen. Euskal Herrian 3 aste egin nituen eta Espainian zehar ibili nintzen gero. Nire asmoa Ingalaterra (non, dantzak bezala, espatak egiten ikasiko dudana), Irlanda, Eskozia, Kroazia, Georgia, Alemania eta Turkiara joatea da.

- Eta Eibarren zehazki zenbat denbora egin zenuen?

Hiru aste egin nituen hemen, zati bitan banatuta.

- Nolako irudia jaso duzu Eibarren gainean? Nolako iruditu zaizu jendea? Eta Kezkako dantzariak?

Kezkako dantzariak izugarri eskuzabala dira, demaseko ongi-etorria eskaini zidaten eta laguntza asko ere. Dantza eta bere historia ikasten asko lagundu zidaten. Gainera, egunetan geratzeko tokia eta ja-

tekoa ere eman zidaten. Askok eskertu behar diet euren laguntza eta laguntasuna. Espero dut laster bueltatzea.

- Nondik datorkizu espata-dantzekiko pasioa?

Espata-dantzekin 7 edo 8 urte nituela hasi nintzen. Nire amak espata-dantza ingeles antzeko bat dantzatzu zuen eta txikia nintzenean ni ere hasi nintzen dantzan! Talde asko-



Jeremy aurten Eibarren egindako Sagardo Egunean.
/ OIER ARAOLAZA

rekin egin izan dut dantza eta espata-dantza talde bi sortu ditut. Orduan, bidaiatu eta espata-dantzak ikasteko beka bat lortu nuen, eta horregatik nago Europan orain.

- Zer iruditzen zaizu Euskal Herriko espata-dantza?

Ikaragarria eta ikusteko oso dibertigarria. Gainera, oso interesgarria da beste leku batzuetan ikusi ditudan dantzen oso antzeko mugimenduak dituelako. Adibidez, Trokeo-dantzak Ingalaterrako Morris dantzarekin zerikusi handia dauka. Espata-dantzen beste figura batzuk, bestetik, Italiako ezpaten ia berdinak dira. Antzekotasun hauek albo batera lagata, Euskal Herriko espata-dantza oso berezi eta ederra da!


- Zein da, azken finean, zure ikerketaren helburua?

Beka bat daukat bidaiak finantziatzeko, eta nire nahia liburu bat edo artikulua idaztea da bidaiak amaitzean. Bestetik, masterra edo doktoretza egitera ere joan ninteko ostean.

ELENA LARRARTE ZURUTUZAREN

2. URTEURRENA (2009-X-15)

**Bere aldeko urteurren meza domekan,
hilaren 23an egingo da, eguerdiko
12.00etan hasita, San Pio X.aren elizan.**





KUP abesbatza izango da, gure herriko Andres Egiguren Orkestriarekin batera, Euskal Herriko ordezkaria Eibarko Musikaldian.

UDAZKEN MUSIKATUA

XIX. Musikaldiaren eskutik


Urteroko martxiari jarraituta, Tolosako naziñoarteko abesbatza lehiaketia martxan daguala aprobetxauta, bertan lehiatuko diran taldietako batzuk Eibarren entzuteko aukeria izango dogu, Eibarko XIX. Musikaldiari esker. Bixar bertan hasiko dan programia Euskal Herriko, Ukrainiako eta Letoniako abesbatzen emanaldixak, Pedro Palacín eibartarrak zuzentzen daben Andres Egiguren Ganbara Orkestiaren kontzertuak eta Andres Toschiren organo saiua osatzen dabe. Aste honetan bertan egindako presentaziñuan azaldu eben moduan, "atzera be lujuzko programaziño oso bariua" aillegauko jaku Musikaldiarekin batera.

Eibarko Udalak, Hezkuntza Esparruak eta Tolosako Ekinbide Etxeak alkarrekin antolatzen daben Musikaldia bixar bertan abiatuko da, Euskal Herriko abesbatza baten eskutik: Gabriel Baltsek zuzenduta, 16 andrazkok eta beste horren-

beste gizonezko, danak be abesbatzen munduan esperientzia haundixa daken abeslarixak osatzen daben KUP Taldia Coliseo antzokixan emanaldixa eskinduko dau zapatuan, 19.00etan hasitta.

Gazte-talde baten ekimenari esker

2003an sortu zan taldia bere jaixotzatik bertatik, zailtasun eta konplejotasun tekniko haundixa daken goi-maillako obrak interpretatzeko helburuari jarraitu detsa eta abesbatzaren ibilbidian Espaiñiako zeñ atzerriko ziklo eta jaialdixetan hartu izan



YASMIN SOUD, pianojolia:
"Musikaldian jardutiak ilusiño haundixa egitten desta"

- Andres Egiguren orkestriarekin joko dozun lehelengo aldixa izango da Musikaldiko emanaldixa?

Eibarko Musikaldian parte hartuko doten lehelengo aldixa izango da, baiña Andres Egiguren orkestriarekin aurretik be jardunda nago, Musikalditik kanpora, Gabonetako kontzertu batian.

- Orkestiak eskinduko daben programaren barruan, bakarlari modura joko dozu. Zein da pianuarekin solista modura joko dozun piezia?

Mozartek idatzitako bat eskinduko dot, 23. zenbakidun kontzertuko K 4.88 izen-

burukua hain zuzen be. Pieza klasikua da, solista eta orkestriarendako sortutakua.

- Beraz, Musikaldian estreñeko zu entzuteko aukeria eukiko dogu. Zelan zagoz?

Oso oso pozik nago, benetan. Pianua josten 4 urte nekala hasi nintzan, oin dala 17 bat urte, baiña oiñ arte ez dot sekula Musikaldia moduko ekitaldi inportantian parte hartu, holako zitak profesionaldako bakarrik izaten dira eta horrelako aukeria izatiak ilusiño haundixa egitten desta. Bestalde, norberaren herrixan jotian beti sentitzen da famelixa eta lagu-

PROGRAMIA

Urriak 22 (zapatua)

KUP abesbatza (Euskal Herrira),
19.00etan Coliseuan.

Urriak 25 (martitzena)

Oreya abesbatza (Ukrainia),
20.30xetan Coliseuan.

Urriak 26 (eguztana)

Youth Choir Balsis (Letonia),
20.30xetan Coliseuan.

Urriak 30 (domekia)

Andres Eiguren Orkestia,
19.00etan Coliseuan.

Urriak 31 (astelehena)

Cesis Girl's Choir (Letonia),
20.30xetan Coliseuan.

Azaruak 12 (zapatua)

Andrea Toschi-ren
organo kontzertua,
20.00etan San Andres elizan.

dau parte, baita naziñoarteko hainbat lehiaketatan be. Eta holakuetan behin baiño gehixagotan sarixa eruan dabe etxera bueltan: folklore sailleko 3. sarixa 2008ko Tolosako lehiaketan, 1. sarixa Maribor-en (Eslovenian) 2009xan, eta 1. hiru sari Tours-en (Frantzian) 2010ian.

Tolosako lehiaketatik Eibarrera

Martitzenian eskinduko da Musikaldiko bigarren emanaldixa, Ukrainiko Oreya Zhitomir, Alexander Vatssek-ek zuzentzen daben ahots-nahasixen abesbatzarena hain zuzen be. Zuzendarixak berak 1986xan eraturako koruak Zhitomirreko musika es-

nen presiño haundixagua beste batzuetan baiño, dana ahalik eta onduen urte-zeko ahalegin berezixa egingo dot.

- Emoten dittuzun beste kontzertuekin konparauta, zertan izango da berezixa hauxe?

Solista moduan jarduten dozunian zeu zara zeure buruaren zein jotzen dozunaren jabe bakarra, baiña orkesta batekin batera jardutian, bakotxak beria kontrolatiaz gain, bestiak jotzen dabena entzun eta musikari bakotxak bakarka eskindutakua osotasun baten modukua izatia zaindu bihar izaten da.

- Musika ikasten jarraitzen duzu, ezta?

Bai, Iruñean piano karrera ikasten dihardut eta ikasturte honetan, bigarren instrumento bat aukeratu bihar izaten da eta nik tronpetia hartu dot, pianuarekin zerikusirik ez dakan instrumentua hain zuzen be. Lau urteko karrera da eta amaitzian lizentzia egingo naiz. Baiña horren ostian ikasten jarraitzeko asmua dakat, beti dago zer ikasi, pentsatzen dot 80 urterekin be ikasten segitzeko aukeria egongo dala.

Letoniako Cesis Girl's Choir hillaren azken egunian izango da gure artian.



kolan daka egoitza eta, 1990. urtiar geroztik, Oreyak 7 Grand Prix eta 23 Lehelengo Sari irabazi ditu mundu osoko jaialdi eta lehiaketetan. 1997xan, Marcel Corneloup, Vaison La Romaine (Frantzia)ko Abesbatza Sarituen Jaialdiko presidentiak esandakua gogora ekarrirta, "Oreya nik entzun dittudan abesbatzetatik lau onenen artian dago" eta gerora be sarritan goraitatu izan dabe abesbatzaren jardunaren kalidade altua. Eta horretarako motiborik ez jakoz falta, Vatssek munduko 20 zuzendari onenen artian dago eta.

Hurrengo emanaldixa Rigako (Letonia) Latvian Youth Choir Balsis ahots-nahasixen abesbatzak eskinduko dau (hillak 26xan, 20.30xetan). Ints Teterovskis-ek zuzenduta, 20 andrazkok eta 16 gizonazkok osa-

esperimentalian zein Letoniako herri-musikan be arrakasta haundixa lortu izan dabe.

Eta Tolosako lehiaketatik etorrirtako laugarren korua Letoniako Con Anima, Ilga Skenderek zuzendutako haur abesbatza izango da (urriak 31, 20.30xetan), 40 neska osatzen daben taldia. Egunero gogotik bihara eginda, urtero programa barriren bat preparamen dabe abesbatza honetako kidiak eta azken urtiotan fama haundixa hartzen jua dira, eskintzen dittuen espektakuluen kalidade haundixarengaittik. Abesbatza gutien kontzertuetarako sarrerak 3 eurotan salduko dittue, antzokiko leihatillan bertan.

Orkestia eta organua

Abesbatzak ez eze, Coliseuak Andres Eiguren ganbara orkestaren kontzertua

be hartuko dau. Pedro Palacin eibartarrak zuzendu eta eraturako taldiak hillaren 30ian eskinduko dau emanaldixa, 19.00etan hasitta (sarre-ria 10 euro). Orkestia karrera musikala ikasten diharduen gaztiak osatzen dabe eta tartian badagoz eibartar batzuk be. Horretatik bik, Iñaki Orbegozok eta



Ukrainiako Oreya abesbatzak martitzenian joko dau Coliseoan, arratsaldeko 20.30xetatik aurrera. Alexander Vatsse zuzendarixa munduko hogei onenen artian dago.


tzen dabe 1987xan sortutako abesbatza. Horretatik gehixenak ikasliak dira, baiña badagoz ikasketa profesionalak dittuen hainbat kide be. Errepertorixuan sasoi diferentietako musikak topatu geinkez, Erdi Aruan eta Berpizkundian hasi eta musika erromantikora saltua emonda. Garaikide

Yasmin Soud-ek, bakarlari modura jardungo dabe emanaldixan.

Eta aurtengo Musikaldiari agur esateko, Coliseotik aldendu eta San Andres eliza eszenatoki izango daben organo kontzertua emongo dau Andrea Toschi musiko italiar-ruak (azaruak 12, 20.00etan).

TEEN-
AJEK

Iker Uzin eta Koldo Azkorbebeitia errekaratuta egiten Huescako Puyarruegon.



Oporretan joan, argazki bat atera eta saria lortu. Plan ederra ematen du, ba horrela gertatu zaio Irune Zubizarreta eibartarrari. Soraluzeako 'Pil-Pilean' aldizkariak antolatutako V. Udako Argazki Lehiaketa irabazi du Irunek Huescako Puyarruego lakuan ateratako argazkiari esker.

IRUNE ZUBIZARRETA, argazkilaria:

“Barregarria iruditzen zait argazkia: surf egiten baleude bezala”

- Zelan hartu zenuen 'Pil-Pilean' aldizkariako udako argazki lehiaketa irabazi zenuen berria? Espero zenuen?

Ezta gutxiago ere! Udan bikote bi Pirinioetara joan ginen oporretan eta, normala denez, argazkiak egin genituen. Egun batean tontoarena egiten argazki hori egin nuen eta, emaitza ikusita, batek esan zidan: “Hori 'Pil-Pilean'-eko argazki lehiaketan aurkeztu behar duzu”. Horrela egin nuen eta, irabazi nuela esan zidatenean, demaseko ezustekoa izan zen. Ez dakit; niri barregarria iruditzen zait argazkia, bata bestearen gainean surf egiten baleude bezala ematen du.

- Lehen aldia da horrelako lehiaketa bat irabazten duzuna? Aurretik halakorik?

Bai, izan ere lehen aldia da horrelako lehiaketa batean parte-hartzen dudana! Egia esan, ez naiz oso argazkizalea; tira, ateratzen ditut argazkiak, baina

kamara arrunt batekin; ez naiz argazki asko egin eta lehiaketetan apuntatzen ibiltzen den horietarikoa.

- Bada, behin parte-hartu eta irabaztea lortu duzu. Hemen-dik aurrera pentsatuko duzu lehiaketetan parte-hartzea?

Orain tentazioa daukat, bai (barreak); lehenengoan irabaztea lortu eta gero, hemendik aurrera, nork daki!

- Eta nolakoa da eskuratu duzun saria?

Nekazal-turismoko etxe batean asteburu pasa egitea. Ez dakit egun batekoa den saria edo egun bikoia: espero dut bikoia izatea. Dena dela, laurak joatea da nire asmoa.

- Hori zen hurrengo galdera. Argazki zuk etara zenuen, baina zure lagunak agertzen dira bertan. Saria konpartituko duzu, beraz?

Bai, bai, noski; gainera, nire mutil laguna da bat. Beraz, laurok joatea da nire nahia.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

CADENA

Radio Eibar

SER

104,0 FM



Euskal Herrian dauden unibertsitatearen batean ikasiz gero aukera bi aurkezten zaizkie ikasleei: unibertsitatea kokatuta dagoen herri edo hirian bizitzea (gutxienez klaseak irauten duten bitartean), edo egunero klaseetara joan eta etxera bueltatzea. Oihane Romaratek lehen aukera egin zuen. Ane Egurenrek bigarrena.

Unibertsitatean hasteak aldaketa handia dakar ikasleentzat (gehienentzat behintzat), baina ikasketetatik kanpo, bizitzan ere eragin handia dauka. Oihaneren kasuan, adibidez, Gasteizen pasatzen dituela lanegun edo ikastegunak. *“Oso gustora nago horrela. Independizatu egin naiz eta momentuz*

Oihane Diseinu Grafiko ikasketak hasi berri ditu Gasteizen. Anek, berriz, Gizarte-Hezkuntza Leioan. Lehenak, han pasatzen ditu asteko egunak alokatutako etxean. Bigarrenak, bere aldetik, egunero joan eta etorri egiten du Bizkaiko hiriburura. Bide berria ireki dute euren bizitzetan, baina biak ala biak era ezberdinean.

Helburu bat, modu bi

ez zait gogorra egiten”. Eibarko beste lagun birekin partekatzen du pisua eta ondo moldatzen dira. *“Gainera, denbora gehiago aprobetxatzen duzu egunean zehar, ez baituzu autobusean hainbeste ibili behar, eta jende gehiago ezagutzeko aukera ematen du, erlazio gehiago egiten dituzu”.*

Anek bezala, Eibartik Gasteizera joan eta etorrian hasi zuen kurtsoa Oihane, *“baina autobusaren eta eskolen ordutegiak txarto egokitzen ziren eta etxea alokatzea erabaki nuen”.* Anek ere badauka etorkizunean aldatzeko asmoa, baina momentuz egunero Leioara autobusean joaten da.

Aldaketarako hainbat arrazoi aipatzen ditu Anek. *“Batzutan kasetik lehenago irten behar dut autobusa hartzeko (bestela ordu-bete itxaron behar dut), taldeko-lanak egiteko arazoak ditut batzuetan, astean zehar denbora asko egiten duzu autobusean...”.* Bestalde, bere alde ona ere ikusten dio egunero gurasoen etxean lo egiteari. *“Familia eta lagunekin egoteko aukera daukat egunero, etxean gauzak eginda egoten dira (bazkaria eta abar) eta aurretik ohituta nagoen bizitza ere jarraitu ahal dut”.*

Autobusak: garestiak edo ez-nahikoak

Lagun biek diote Eibarko ikasle gehienak egunero joan eta etorrian dabiltzala unibertsitateetara, baina, normalean, Gasteizen



Oihane Romaratek Gasteizen ikasten du eta Ane Egurenrek Leioa. / EKHI BELAR

ikasten dutenek etxea alokatu edo egoitzan geratzen dira nahiz eta autobusaren iraupea, bai Leioara, bai Gasteizera, ia berdina den. *“Kontua da Gasteizera joateko autobusak 3 (txartelarekin) edo 6 (txartel gabe) euro balio duela, beraz, errentagarriagoa da han geratzea”*, dio Oihane.

Anerentzat beste bat da arazoa autobusekin. *“Eibartik Leioara joateko Bikain enpresak bakarrik dauzka zuzeneko autobusak, baina ordutegi bat dauka eta askotan ez du bakoitzaren klase-orduekin bat egiten. Bestela, Ermuara tranbian joan eta handik Bizkai Busa hartu behar duzu, honen bien ordutegia begiratu behar duzularik. Zergatik ez da Bizkai Busa Eibarreraino iritsen? Ez dauka zentzurik”.*

Unibertsitate-bizitza hasi berri dute lagun biek, Ane eta Oihane. Bide ezberdinak hartu dituzte (momentuz), baina helmuga bera daukate: graduazioa.

La Sallekoak kobazulo “magikoan”

Azitaingo La Salle ikastetxeko ikasleek bidaia kitzikagarria egiteko parada izan berri dute, Itziarko Aixa kobazuloko begirale eta ikastetxeko Gorputz Heziketako irakaslearekin batera egindako irteeran. Irakasleen berbetan, “argi gutxi egonagatik eta bidea estua izanagatik kobazuloaren edertasunaz gozatu zuten ikasleek. Barruan zeudela, berriz, begiraleek geologia formazioen, ekologiaren, landare, animalia eta bestelako inguruko azalpenak eman zizkieten”.



GREMIOEN GIDA

NEW 2008

ANTENAK

BALATZ S.L.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

ulmar
S.L.
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**
Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta
mantenimendua

ARKITEKTOAK

LEDBRAGA & OTERMIN ARKITEKTOAK
Paseo de la Libertad 10 - 48100 BILBAO
urbanismo, proiektuak, diseinua, egiturak, instalazioak,
ordenaketa, abizak, enpresen eta enbrietasunak, abizaketa

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD
TELÉFONOS
INDUSTRIAL MANTENIMIENTO
ELECTRICAL

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota Ateak - Tarimak
guztietako lanak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

GURIA
ELEKTRIZITATEA
* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak
Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia
Egiturak, barruko eta kanpoko atek,
arimairu enpatratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak
Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



IRAIZABAL

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azaitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3^{an}
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura

Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRILAGINTZA



GILTZAK


Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietao giltzen kopiak
Trabatutako atsek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



1920. urtearen bueltan ateratako irudia. Bidebarrietako Miliotxua txaletaren osteko ortuak. Hondoan Aurrera Fundazioaren tximinia ikusten da.
/ EIBARKO UDAL ARTXIBOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK FONDOA



43 urte dira Arrate Hotela jausi zela

Bederatzi solairuko eraikina osorik jausi zen 1968ko urriaren 12an. Pilarika egunean eta Guardia Zibilaren egun handian. Bost segundoko kontua izan zen eta inor ez zuen azpian harapatu. Zorte handiko kontua izan zen. Orduko ohiturek bideratutakoa: egunero ehun bat langile bertan izaten zirenean, egun hartan ez zegoen inor. Zer dela-eta? Jai-eguna zen eta sasoi hartan baimena eskatu behar zitzaion parrokoari holakoetan beharra egiteko. Parrokoak ez zien eman eta hori pozik ospatu zuten gero hotelaren fatxadako baldosak ipintzera Madrildik etorritako langileak, jai-eguna zela-eta dotore jantzita.

Orduan ere autobusak kale horretatik irtetzen ziren eta minutu batzuk lehenengo abiatu zen eskola-umeen txango bat, euren maisuekin. Ez hori bakarrik, obraren zaintzailea ere Irimo tabernan zegoen (gaur egungo K-OX dagoen tokian), hamarretakoaren bila joanda. Goizeko 10.30etan Eibarko erdi aldea irinez jantzi zen, obrahondakinak aldameneko etxearen 3. solairuraino iristen ziren bitartean. Udalaren sirena jotzen hasi zen geratu barik herriko lehenengo hotela izan behar zena erori zenean.

Aranzazu kateak maneja-tzen zituen daten arabera, handik hilabete eta erdira, San Andres egunean, zen inauguratzeko hotela eta galerak sasoi hartako 10 milioi pezetatan baloratu ziren, hau da, gaur egungo 60.000 euro. Porlanaren kalitate kaskarrari egotzi zitzaion istripua, gero egindako txostenen arabera. Bi urte eta erdi geroago, 1971ko urtarilean inauguratu zen gaur egun dugun Arrate Hotela.

XX. mendearen bueltan

TOMAS ETXALUZE "La Voz de Guipúzcoa" Donostiako egunkari errepublikarrean Eibarko korrespontsala izan zen XX. mendearen lehenengo herenean. Bere kroniken artean, oraingoan **PEDRO SARASKETA**k 1917ko martxoaren 16an bidalitakoa jaso dugu; eibartar hau idazlea eta kazetaria izan zen eta, baita, Eusko Alderdi Jeltzale Errepublikanoaren ohorezko presidentea.

Matxino baten notak

Salon Kruzetan iragartzen zen egitaraua tentagarria zen. Beharrari tarte bat lapurtuz, greba txiki bat egin eta Aita Donostiak eta enparauak eskaini behar zuten gau-emanaldira joan nintzen. Irteeran poztu nintzen egindako ihesbidearengatik. Antzokia lepo zegoen eta jendea irrikitan nabaritzen zen. Teloia altxatu eta hain ikusi nuen Aita Donostia, musikariez eta abeslari-iez inguratuta: kaputxinoa bera, bizkorra eta geldirik egoten ez den horietakoa, eta sinpatikoa egin zitzaidan. Adi-adi egon nintzen bere hasierako hitzaldia entzuten eta, euskal musikaren inguruan hitz egin edo idatzi duten hainbat egileen aipuen artean, asko poztu ninduen berak Gascue nire laguna aipatzea eta bere laguna balitz hartu izateak. Tolerantzia adibide polit horrek guztiz irabazi ninduen. Eta tolerantzia horri eta Eibarko demokraziari heldu zien Aita Donostiak hitzaldi luzearen hasieran. Ondo egina, gurekin konfidantza erakustea: horri esker txalotu baigenion, ia geratu gabe, hasi jainkojale atzerakoienetik eta sozialista porrokatuetakoraino, antzokian esaten zuena jarraitzen gengozen guztiok.

Nire ondoan zegoen adinean sartutako karlista batek aspaldiko ohiturekin maitemindutako horietakoa bera, komentario bitxiak egiten zituen: Jaunak, zelan aldatzen den mundua!, zioen aipatutakoak. Fraile bat antzoki publiko batean, apaizak abesten eszenate-

gian, eta guzti hori Garizuman gaudenean, bete-betean! Honek ezin du ezer onik ekarri!

Eta amaieran ikusi nuena bitxiagoa da oraindik, bitxiagoa eta begikoagoa, bai niretzat eta baita eibartarrontzat ere. Horrek erakusten baitu "arte jainkotiarra"-ren zaleek zentzu praktikoagoa dutela beste zale mota batzuetakoek baino.

Hainbeste aldiz ohoratutako Eibarko Udal Bandaren lanaz ere gozatzeko aukera izan genuen. Ekitaldi erlijiosoetan parte hartzea nahi ez zuelako, behin baino gehiagotan, eta moldezko letretan, "Banda gorria" deitutakoak euskal musika dotore interpretatu zuen kaputxino nekaezinaren aginduetara, azken honen batuta magikoari jarraituz. Batuta horrek bere eskuetan ezpata mendekatzaila zirudien, azken aldian gure musika baztertuta izanaren mendeku bila balego bezala.

Berpizkunde lan hori ez dugu geuk, ezkerrekook, egin. Kaputxino bat etorri behar izan da inposatzera. Pazientzia. Ahalegindu gaitezen gu, profanook, mendekua hartzen eta saia gaitezen zeozter gehiago egiten kausaren alde. Ongietorria izan dadila fraide iraultzaile hori! Euskal gaiak berpizten dituenek, miraria egin dadila, abadea bada ere egiten duena! Nire esku-zartak jasoko ditu bere kanpaina ederraren alde. Izan gaitezen zuzenak!



Usobiaga aurkezpenean, De los Toyos, Badiola eta Mutiloarekin. / EKHI BELAR

Patxi Usobiagak agur eskaladari

MUNDUKO KOPA BI (2006 ETA 2007), MUNDUKO TXAPELKETA (2009), EUROPAKO TXAPELKETA (2008), Euskadiko Kirolari Okena (2006), Urteko Eskalataile Okena (2006) eta beste hainbat sarirekin agur esan zion eguaztenean Patxi Usobiagak eskaladari. Lesioek eragin dute kirolari eibartarren agurra 31 urterekin, "ez nuen nahi hain goiz erretiratzea. Eskaladaren gailurrera iritsi izan naiz eta asko pozten nau horrek. Era berean, pozik nago nire bizitzaren momentu honetan ere". Hernia diskalak ez zion bere maila gartzten uzten eta uztailean uko

egin zion Munduko Kopan parte-hartzeari. Orduetik surfean aritu da Usobiaga eta katu oinak eskegitzea erabaki du. *"Betetzen nauen beste kirol bat aurkitu dut, goizero ilusioarekin altxatzea eragiten didana. Obsesioa da orain surfa niretzat, ikasten dihardut eta zaila da; bildurra pasatzen dut, baina oso gustora nabil"*, aipatu zuen eibartarrak. Aurrean proiektu asko dituela esan zuen, denak eskaladarekin lotutakoak. Izan ere, bizitza osoa paretean eskegita eman du, baina urte txarra igaoro ostean "ondo" dagoela onartu zuen agurraren aurrean.

Ipuru gimnasia erritmikoko taldea Euskadiko txapelketan

EIBARKO KLUBA IZANGO DA BIHAR GASTEIZEN JOKATUKO DEN TXAPELKETA HORRETAKO hamar taldeetako bat, ordezkari bikoitzarekin gainera: 1. mailan, Olatz Ibaibarriaga, Olatz Laskurain, Carmen Gamundi, Irati Alonso eta Jone Pérez izango dira taldea osatzen; eta Irati Yarza, Noelia Bedia, Kristina Alegria, Ane González eta Rakel Guerra junior mailakoan. Talde nagusiak gogor hasi du denboraldia eta, horrela, txapela irabazi zuten Donostian jokaturako Izar Leku txapelketan eta 3. postuan sailkatu ziren Zaragozan, El Pilar tornean.



Azaroa ere txapelketaz beteta dator Ipuruarentzat: Domusantu egunean Gipuzkoako txapelketa jokatu dute, hilaren 6an Anaitasuna txapelketa, 12-13an Euskal Gym-a

Bilbon eta Durangon, 19an Zaragozako Utebo klubak antolatutako torneo eta, hilabetea amaitzeko, ohiko San Andres Txapelketa. Egutegi estu horrekin jarraitzeko, Espainiako txapelketa izango da jokoan abenduaren 8 eta 11 bitartean.

Xake Eskola berriz abian

KLUB DEPORTIBOKO BATZORDEAK XAKE ESKOLA MARTXAN jarri du berriz ere kasturte berrirako. Helduen klaseak (4. mailatik aurrera) astelehenetan izango dira, 17.00etatik 18.30etara eta gazteenenak barixakuetan, ordutegi berarekin. Informazio gehiagorako xakea@deporeibar.com helbidera idatzi dezakezue.

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Solomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Txipiroti eta tipulin nahaskia

Legatza plantxan edo
Bakailaoa bizkaitar erara

Solomilloa plantxan edo
Orein erregosia

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Turroi bigun mousse-a

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizte 20 - beheko eskualdea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Daba

Tanatorio eta Erreusketako laborategia

Egokien (Sagua poligonak)
Aurkariak: natibo eta ongarri erosi zerbitzuak
Kokatu - Eskala - Urtearenako erakundeak
Euskal Herri osoan erakundeak hartzen dituzte
Nazioen Nazioarteko erakundeak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (34 943) **943 201 951**



Waterpoloko Urbat-eko gazteenak Donostiako nazioarteko torneoan


EIBARKO WATERPOLO ESKOLAKO INFANTIL MAILAKO TALDEAK BIKAIN JARDUN ZUEN erreferentea bihurtu den Donostiako nazioarteko torneoan eta, 18 taldetik, 4. postuan amaitu zuen, modu horretan uztailean Genoako Torneo Internazionale del Maren izandako sentsazio onak berretsiz. Donostiak irabazi zuen torneoa, Askartza eta Montjuic-en aurretik, eta eibartarrak, laugarren geratu baino lehen faborito nagusia zen Bordeaux-eko Saint Bruno garaitu zuten: 3-2ko hori ezuste handia izan zen, aurretik frantziarrek multzoko

talde guztiak egurtu baitzituen, 30etik gora gol sartuz eta bakar bat ere jaso barik.

Talde gazte horretako Urbat-Urkotronic-en plantilla erdia berria da, orain dela hilabete pasatxo entrenatzen hasi ziren jokalaririk gaztez osatutakoa, eta azkar batean egin dituzte bere Davide Cerchi entrenatzailearen aginduak. Bestalde, taldeko lau jokalaririk (Joseba Urkia, Alex Sarasua, Una Etxaburu eta Mikel Sánchez) etzirako deitu dituzte infantil mailako euskal selekzioak egingo duen lehen teknifikazio entrenamendu saiorako.

Ane Ziaren olinpiar onena Bartzelonako triatlloan

DOMEKAN JOKATUTAKO BARTZELO-NAKO GARMIN TRIATLOIAN EIBAR TRIATLOITALDEKO ATLETA onena izan zen 170 emakume parte hartu zuten olinpiar mailako proban. Kilometro eta erdi igerian, 40 bizikletaz eta beste hamar antxitxiketan egin behar izan zuten parte-hartzaileek eta Ane Ziaren aurretik elite mailako beste bederati sailkatu ziren. Irabazlea Olinpiadetan jardundako Ainhoa Murua zarautzitarra izan zen. Maila eta distantzia ezberdinetan 6.000 atletatik gora hartu zuten parte.




Koskor-ek sendo dihardu

TANKEMANS-I 3-0 IRABAZI ZION LIDERAK AZKEN JARDUNALDIAN (Carlos, Baqué eta Joseren golekina) eta lau puntuko aldea kentzen dio Azkena Kalton bigarren sailkatuari. Teknografik (10), Alkideba (9), Esmorga, Tankemans eta EzDok (8), Durango eta Caserío (7) eta Living Café (6) dira hurrengoak sailkapenean. Koskor-EzDok jokatu da domekan (09.00etan).

Klubn Artekoen partiduak Astelenan

EGAÑA ETA BONGOETXEA SENIORRETAN ETA ZUBIZARRETA ETA ANDONEGI JUBENILETAN; horiek izango dira bihar Klub Deportiboaren ordezkariak Astelena frontoian jokatu diren neurketetan. 20.15etan hasiko den jaialdian, nagusien arteko lehiak Usurbilgo Sancho-Urruzola izango dira aurkariak eta bigarren partiduan Urnietako Loitegi-Lizaso: bikote batek zein besteak lautik lau partidu irabazi zituzte orain arte, eta eibartarrei ondo kostatuko zaie garaile irtetzea.



Azken asteburuan, bestalde, emaitza onak eskuratu zituzten gure ordezkariak: hiru garaipen eta porrot bakarra. Seniorretan, Egaña-Bengoetxea bikoteak 22-20 irabazi zuten tolosarrei, jubeniletan 22-21 nagusitu zen Zubizarreta-Andonegi bikotea loiolatarren aurrean eta kadeteetan, hamalauna berdinduta joan eta gero, zortzi tanto jarraian egin zuen Santa Maria-Narbaiza bikoteak. Kadete mailako Arrillaga-Urionabarretxea bikoteak 20-22 galdu zuen Andoainen, latz borrokatu ondoren.



Gazteen errugbi jardunaldia Deban

HORRELAKO OHITURAK EZ DIRA GALDU BEHAR ETA, EIBAR RUGBI TALDEAK ANTOLATUTA eta Gipuzkoako Errugbi Federazioaren laguntzarekin, aurreko domeka goizean Debako hondartzan egin zen errugbiaren gozatzeko jardunaldian, 8 eta 11 urte bitarteko 200 neska-mutil izan ziren parte hartzen. Probintziako klub guztietako alebin eta benjamin mailetakoko jokalaririk izan ziren eta, itsasoan bainu ederra hartu ondoren, hirugarren denborarekin gozatu zuten. Bestalde, Eibarko taldeko infantil mailakoak Donostian izan ziren teknifikazio entrenamendu batean.

Eibar Foball Taldeak ohiko batzarra egingo du astelehenean

AKZIONISTEN URTE-ROKO BATZARRA EGINGO DU EIBAR FOBALL TALDEAK

astelehenean, hilaren 24an, 19.30-etan hasita Portalean. Azken denboraldiko kontuak onartzeaz gain, hurrengo denboraldirako aurrekontua onartuko da bertan, bazkideek horrela badiote. Kontseiluak bere agintaldiko azken urtea beteko du eta, hori dela-eta, hainbat aldaketekin batera, klubak presidentziarako hauteskundeak egongo diren edo ez erabaki baharko du.



Beistegiri omenaldia

Bestalde, herenegun aurkeztu zuten zapatuan, 16.30etan, Ipuruan jokatu den Mikel Beistegiren omenezko partidua. Beteranoren artekoa izango da eta Eibar FT-k eta Athletic-ek jokatu dute. Sarrera doan izango da eta, jokatu dutenen artean, Joseba Etxeberria elgoibartarra izango da.

Irujo-Oinatz partidu handia domekan Astelenako jaialdian

PROFESIONAL MAILAKO LAU ETA ERDIAREN BARRUKO FINAL-LAURDENETAKO NEURKETARIK GARRANTZITSUENETARIKOA jokatu da domeka arratsaldean Astelena frontoian. Jaialdiko partidu nagusian nor baino nor izango dira Juan Martínez de Irujo Aspetik eta Oinatz Bengoetxea Asegarzeko pilotaria. Horko irabazleak azken ligaxkarako txartela eskuratuko du final-laurdenetako



ko beste hiru irabazleekin batera. Aurretik, 2. mailako aurreko koadroetako beste neurketa bat izango da, Olazabal eta Lemunoren artean. Eta, domekakoarekin amaitzeko, Gorka Arruti eta Mendizabal III.a-Larrinaga bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango dute pilotazaleek.

Ruibal garaile saskibaloian

63-50 NAGUSITU ZITZAION EIBARKO TALDEA ASTIGARRAGAKO MUNDARRO LA SALLERI denboraldiko lehen jardunaldian. Partidua atsedendialdiaren bueltan, aldagelatik itzultzean erabaki zen, eibartarrak egindako defentsarekin. Gergorik lortu zituen puntu gehien. Katu Kalek, bestalde, galdu egin zuen (47-58) Cafés Aitona B-rekin, batez ere jaurtiketa libreetan egindako hutsengatik.

Eibar Eskubaloia nagusi

JOKATUTAKO IA PARTIDU GUZTIETAN NAGUSITU ZIREN EIBARTARRAK, batez ere maila guztietako lehen taldeak. Seniorren taldeak atsedena izan bazuen ere, besteak lortutako emaitzek ondo erakusten dute klubaren indarra: jubenetan, A taldeak 31-13 irabazi zion Leizarani; kadeteetan, A-k (39-12), B-k (37-15), C-k (16-38) eta neskek (25-19 Urnietari) pleno egin zuten.

Anetxeren garaipena

ERRUGBIKO TALDE NAGUSIAK BIKAIN HASI ZUEN DENBORALDIA Gasteizen Gaztediri 9-24 irabazita. Eibar Hierros Anetxeren talde nagusiarekin debutatu zuen Pablo Carmona jubenilak, maila ona erakutsiz. Bihar, 16.30etan, mailaz jaitsi den Uribealdea izango du aurkari irabazteko zaila izango den neurketan.

33.151
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da

SALGAI DUZU:
Udal Euskaltegia
AEK Euskaltegia
Isasi okindegia
Zabaleta okindegia
Untzaga prentsa
Urkizu prentsa
Kultu taberna
Mujika harategia
Valenciaga jantxidenda
Izadi loradenda
Zubi-Gain kafetegia
San Andres gozotegia
Dibutec fotokopiadenda
Bolintxo okindegia
Bankoa
...eta kitto!

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirurgia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

Kazetaria, irudi aholkularia, personal-shopperra eta moda bloggerra da Ana Goitia lekeitiarra. 'Modaren sekretuak: tendentziak eta aholkuak' izeneko ikastaroa eskainiko du '...eta kitto!'-n azaroaren 3, 10, 17 eta 24ean. Izen-ematea urriaren 28an amaitzen da ('...eta kitto!'-ren egoitzan, Urkizu 11 solairuarean edo 943-200918 zenbakira deituta). Prezioa 12 eurokoa da (bazkideek 10).



ANA GOITIA, irudi aholkularia:

"Jendea gero eta gehiago arduratzen da modaz"

- Zeintzuk dira udazken/negu honetan moda munduan nagusituko diren tendentziak?

60 eta 70 hamarkadako estiloa, lentejuelak edonon, kolore biziak, fetitxismo puntua, (hau da, larrua, beltza, korseak) punto lodizko jertseak, animalia estanpatua, gizonezko eta emakumezkoen arteko jantzien kontrastea, 40.hamarkada gogoratzen duten jantziak, mostaza eta urdin-blein koloreak... Asko dira tendentziak! Norberarekin ondoen datozenak aukeratzea da gakoa.

- Nola jantzi edo konplementuak ezin dira falta pertsona bat moda-modan joateko?

Blazer edo amerikana, prakak zabalak, lentejuelazko edozer: galtza, zein boltso, zein zapatak..., kuiña duten botak edo mostaza koloreko zerbeit.

- Jendeak, orokorrean, jarraitzen ditu modak?

Bai jendeak jarraitzen ditu tendentziak, baina gehienetan

ez nahita, baizik eta erosten duen dendetan tendentzian dauden arropa eta osagarriak aurkitzen dituelako. Hala ere, jendea gero eta gehiago arduratzen da modaz.

- Bloga daukazu (www.elrincondeanatu.com). Zer da bertan kontatzen duzuna?

Nire blog-a pasio batetik sortutako bitakora bat da. Modarako dudak pasioaz. Bertan gustoko ditudan tendentziak, nire look-ak, erosketak, diseinatzaileak, markak, eta abar azaltzen ditut.

- Nolakoa izango da '...eta kitto!'-n eskainiko duzun ikastaroa? Zertan datza?

Ba nolakoa ez dakit, baina ahaleginduko naiz ahalik eta entretenigarrien izaten. Ikastaroan erakusten ahaleginduko naizen gaiak hauek dira: gorputzaren arabera nola jantzi, zer den beharrezkoa armairu batean eta zer ez, tendentziak, ezkontzetara eta antzeko kontuetara nola jantzi joan... Guzti hori eta gehiago ikusteko aukera izango dugu ikastaroan.





Durango eta Eibarko Bandak bikain Coliseoan

AURREKO ASTEBURUAN, DOMEKAN ELKARREKIN KONZERTUA EMAN ZUTEN EIBARKO CIELITO ETA DURANGO-KO TABIRA MUSIKA BANDEK, Coliseoan, Iñaki Orbegozo Cielito Musika Bandako zuzendariordearen aginduetara. Taula gainean 80 bat musikaririk jardun zuten eta kontzertura joandakoak benetan gustura irten ziren emanalditik.

Lan Onari goraipamena Debegesarentzat

PATXI LÓPEZ LEHENDAKARIAK MARTITZENEAN, HILAREN 25-EAN, EUSKADIREN EGUNAREN TESTUINGURUAN antolatuta duten jaian dominak banatuko dizkie omentzeko aukeratu dituen hainbat laguni, tartean Juan Angel Balbás Debabarreneneko Garapen Ekonomikorako Elkarteko zuzendari nagusiari. Balbás-ek "Lan Onari" goraipamena jasoko du ekitaldian, Eduardo Anitua sendagile eta ikertzailearekin, Ana Blanco kazetariarekin, Martín Fiz kirolariarekin, Juan Pablo Fusi historialariarekin eta Milagros García Crespo ekonomialariarekin batera. Halaber, José Ignacio Sánchez Galáni "Lagun Onari" goraipamena emango diote ekitaldi berean. Eta "Gernikako Arbolaren Gurutzeta", berriz, Carlos Garaikoetxeak jasoko du.



Illunabarrian arrakastatsua

EGUAZTEN ARRATSALDEAN PORTALEAN ESKAINI ZEN "BUAH TXABALI" BAKARRIZKETA SAIOA, ...eta kitto! Euskara Elkartearen Illunabarrian ekimenaren testuinguruan. Gazteentzat bereziki pentsatutako antzezlanak adin guztietako publikoa erakarri zuen eta bertaratutakoek primeran eman zuten ikuskizunak iraun zuen denbora, Jon Zubiaga "Osoron"-ek esandako zein egindakoekin.

Indalezio Ojanguren lehiaketak baditu irabazleak

ANDRES INDURAIN, EMILIO MUÑOZ ETA JAVIER SOTOK OSATUTAKO INDALEZIO OJANGUREN XXIV. ARGAZKI LEHIAKETAREN EPAIMAHIA BILDUTA, aho batez honako sari hauek ematea erabaki dute: Indalezio Ojanguren Ohorezko Saria Argazki Bilduma Onenari, Xavier Ferrer Chust-entzat "Jason" izenburuko zuri-beltzezko bildumarekin; Indalezio Ojanguren Sariak, Jose Vila Airas-entzat (Eibar), Juan Ramón Llavori Motatet-entzat (Zumaia), Miquel Planelles Saurina-entzat (Banyoles) eta Javier P. Fernández Ferreras-entzat (Berango); Euskal Herri Mailako Indalezio Ojanguren Sariak, Juan Palacios García-entzat (Eibar), José Luis Irigoien Martínez-entzat (Eibar) eta José Manuel Lucena Moral-entzat (Ermua); Herri Mailako

Indalezio Ojanguren Sariak, Miren Bakarne Elejalde Garitagoitia-entzat, Virginia Arakistainentzat eta Pedro M^a Arriola Arrizabalagarentzat; eta 16 urtetik beherakoentzako saria argazki onenari, Unai Mora Berrizbeitiarentzat.

Aurtengo edizioan 57 lagun lehiatu dira eta irabazleen lanak zein aukeraturako beste hainbat irudi hila- laren 28tik aurrera ikusgai izango dira Portalean, azaroaren 20ra arte martxan izango den erakusketan. Irabazleei sariak erakusketaren inaugurazioan bertan banatuko dizkiete. Aldameneko argazkia Iri-



Jose Luis Irigoien eibarraren lana izan da saritueta bat.

goieni Euskal Herri mailako 2. saria eman dion lana da.

Bakillauaren Kofradixiak Cuevas eta Orbegozo omenduko ditu

BAKILLAUAREN KOFRADIXIA BERE AGENDAN HITZORDU NAGUSIENA IZANGO DENAREN TZAT GERTU EGOTEKO beharrea hasita dago. Urteroko martxari jarraituta, San Andres jaien testuinguruan garatuko dituzte talde honetako kideek antolatutako ohi dituzten jarduerak. Batetik, azaroaren 13rako Eskolarteko VIII. Bakillao Lehiaketa izango da, 11.00etan hasita: 12-14 urte bitarteko lau bikote eta 14-16 urte bitarteko beste horrenbeste bikote lehiatuko dira txapelketan eta



adin-tarte bakoitzeko txapelketari garaikur bana emango diete antolatzaileek. Horrez gain, ikastetxe irabazleentzat garaikurra emango dute eta parte-hartzen duten guztiek domina bana jasoko dute. Ikasleei prestatu beharreko bakailaoa antolatzaileek emango diete eta, gainera, nola prestatu ere azalduko diete, azaroaren 10ean 20.00etan Untzagako jubilatutako areto nagusian.

Bestalde, azaroaren 27an Bakillauaren Kofradixiak XVIII. Batzar Nagusia ospatuko du eta, ohikoari jarraituta, estatuko zein atzerriko herrietatik etorritako kofradiak batuko dituen ekitaldian herriko pertsonaia zein talde ezagunei omenaldia egingo diete, Ohorezko Kofrade izendatuta eta aurtengo omenduak Asier Cuevas korrikalaria, Iñaki Orbegozo musikaria eta Jose M^a Cornago eta Juan Ortega Antzerki Jardunaldietako antolatzaileak izango direla aurreratu dute.

laburrak

INDIANOKUARAKO LOGOTIPOA

Gazteentzat (12-17 urte bitartekoentzat) lehiaketa antolatutako dute, Indianokua Gaztelekuaren logotipoa aukeratzeko. Lanak euskarri gogor baten gainean eta formatu digitalean (JPG, 300 ppp-ko bereizmena) aurkeztu beharko dira, azaroaren 20a baino lehen, Indianokuan bertan (Muzategi, 3an). Saria 8GB-eko Schneider Prime MP5-a izango da.

1951-N JAIOTAKOAK

Urte horretan jaiotakoak, Eibarren bertan jaiotakoak zein gure herrian bizi direnak, bazkaria egingo dute azaroaren 19an Iruki Sagardotegian, 14.30etan. Joan nahi dutenek 70 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0035 10 0012847646. Dirua sartzeko azken eguna azaroaren 12a izango da (izen-deiturak ipini dirua sartzean). Bazkaldu aurretik, 13.00etan talde-argazkia aterako da Untzagan.

IKASTAROKA DENDARIENTZAT

Merkatariei zuzendutako hiru ikastaro antolatutako dituzte: "Inteligentzia emozionala eta estresaren kudeaketa" (urriak 26 / azaroak 8), "Sare sozialen abantailak" (azaroak 2 / azaroak 11) eta "Salmentarako teknikak eta bezeroari arreta" (azaroak 14 / azaroak 23). Informazioa: 943207694 telefonora (Leire Goenaga) edo empleo@fmg.es helbidera jo daiteke.

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txalixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 Fax: 943 202564

Liburu Azoka domekan itxiko dute

AURREKO BARIKUAN ZABALDU ZUTEN UNTZAGAN EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDEAK URTERO ANTOLATZEN DUEN Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Domekara arte (hilaren 23ra arte) martxan izango den azoka gaur 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara zabalduko dute; bihar (zapatua) eta etzi (domeka), berriz, aste barruko ordutegia luzatu eta ordu erdi geroago itxiko dute. Azokan liburu eta diskoak salgai ipini dituztenak azken ur-

teotako parte-hartzaileak dira: Biok (liburudenda, Bizkaia), Arriaga (liburudenda, Araba), Elkar Liburudenda (argitaletxea, Gipuzkoa), Erein (argitaletxea, Gipuzkoa), Gure Liburuak (argitaletxea, Nafarroa), Urretxindorra (liburudenda, Bizkaia), Herriak (banatzailea, Bizkaia), J.C. Irizar (argitaletxea, Gipuzkoa), Zabaltzen (banatzailea, Gipuzkoa), Txalaparta (argitaletxea, Nafarroa), Ttartalolo (argitaletxea, Gipuzkoa), Eibarko Udala, Xalbador (argitaletxea, Nafarroa), Izakiak (ba-



Aurreko asteko barixakuan udaletxean egindako azokaren aurkezpeneko irudia. / EKHI BELAR

natzailea, Araba), Elkar (argitaletxea, Gipuzkoa), Elkar Diskoak (argitaletxea, Gipuzkoa) eta Los Libros Más Pequeños del Mundo (argitaletxea, Perú). Bestalde, Azokaren harira,

gaur arratsalderako liburu-izenpetzea antolatu dute, 19.00etarako. Erein argitaletxearen stand-ean Jon Arretxe izango da bere "Tangerko ametsak" liburua sinatzen.

Liburu aurkezpen musikatua Karrikan

DOMEKAN IBAN ZALDUAK AURTEN ARGITARA EMAN DUEN "BIODISKO-



GRAFIAK" LIBURUAREN AURKEZPEN MUSIKATUA hartuko du Karrika tabernak, 19.00etan hasita. Aurkeztuko duten lan horretan Zalduak bere bizitzako 39 diskoren haritik tiraka sortu dituen istorioak biltzen ditu, nagusiki pop eta rock artean mugitzen diren diskoetatik hartutakoak. Liburuaren aurkezpena egiteko, ohiko presentazioetatik aldenduko den ikuskizun berezia atondu du egileak: idazlearekin batera Xabier Montoia eta Ibon RG musikariek jardungo dute eta, horrela, hainbat pasarteren irakurketeta eta kantuak tartekatuta, testu bakoitzarentzat giro egokia sortzen joango dira.



Luma hitz gurutzatuen txapelketa

LUMA HITZ JOKOEN HILABETETKARIAREN ESKUTIK EUSKAL HERRIKO HITZ GURUTZATUEN V. TXAPELKETA abian da eta finala azaroaren 26an Irunen, Ola Sagardotegian jokatuko da. Kanporaketako proba biak 10.00etan eta 11.00etan hasiko dira hurrenez hurren, 16 onenek finalaurrekoa jokatuko dute ondoren et,

bazkaldu aurretik, lau onenek finala jokatuko dute. Txapelketako irabazleentzat hainbat sari banatuko dituzte: lehenengo geratzen dena txapela eta 350 euro jasoko ditu, bigarrenak 225 euro eta hirugarrenak 120 euro, laugarrenak 60 euro, eta bosgarrenetik hamaseigarrenera artekoak 20na euro eta bestelako oroigarriak eramango dituzte. Finalaren ostean, bazkaria eta sarien banaketa ekitaldia egingo dira eta, horrekin batera, bertsolariak, kantu saioa eta beste hainbatekin osatutako egitaraua garatuko dute. Txapelketan parte hartzeko prezioa 20 eurokoa da Luma aldizkariaren harpidedunentzat (bazkaria barne) eta 25 euroko gainontzekoentzat. Informazio gehiagorako www.xedera.com helbidera jo daiteke.

Arrateko ezpata-dantzak Arriagan

JUAN ANTONIO URBELTZEN ZUZENDARITZAPEAN, "AUNITZ URTEZ" IKUSKIZUN BERRIA AURKEZTU ZUEN ARGIA DANTZARI TALDEAK domekan, Bilboko Arriaga antzokian. Ikuskizunean, besteak beste,



Arrateko ezpata-dantza eskaini zuten, Iruñeko ezpata-dantzarekin batera. Ikuskizun berriaren osagai nagusiak ezpata-dantzak, irradakak, soka-dantzak eta ingurutxoak dira. Azken urteotan ohikoa den moduan, Donostiako Argiako dantzariekin batera Iruñeko Duguna, Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka dantza taldeetako dantza-


riek hartu zuten parte estreinaldian. Han izan ziren Kezka taldeko 16 dantzari: Irati Kortabitarte, Luken Aranburu, Aiert Ibarbia, Josu Garate, Oier Ibarbia, Ekhi Zugasti, Enrike Izagirre, Oihane Llorente, Esther Kareaga, Joseba Aranzabal, Zuriñe Torre, Unai Txurruka, Olaia Gabirondo, Izaskun Alberdi, Ainhoa Larrañaga eta Oier Araolaza.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Ongi etorri hillairen 12xan jaixo zan AITANA Hernández Cordón-i. Zorionak eta laztan haundi bana aitaxo, amatxo eta Markeli.




Zorionak, UNAI, atzo lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, JUNE, aurreko domekan zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundixa etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL AZKARGORTA, domekan zure urtebetetzia ospatuko dogulako. Muxu haundi bat famelixa eta lagunen partez.




Zorionak, EDU eta ITZÁ, hillairen 16xan eta 23an urtiak egin dozuez-eta. Laztan haundi bana.



Zorionak, MIKEL eta GORKA Latorre Lasuen, zuen 2. eta 6. urtebetetzietan. Muxu haundi bat osaba-izeben partez.



Zorionak, MAIDER eta JON! Patxo haundi bat Errastitarren partez!



Zorionak, ROSA eta MILA, hillairen 22xan eta 24an urtiak beteko dozuez-eta! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.

zinea Coliseoan




"La cara oculta"
Zuzendaria: **Andres Baiz**
Aktoreak: **Quim Gutiérrez, Clara Lago, Martina García**

21ean: 22.30
22an: 19.45, 22.30
23an: 20.00
24an: 20.30
25ean: 20.00



Zorionak, MIKEL, martitzenian zazpi urte beteko dozuzelako. Etxekuen partetik.



"Intruders"
Zuzendaria: **J. Carlos Fresnadillo**
Aktoreak: **Clive Owen, Daniel Brühl, Pilar López de Ayala**

21ean: 22.30
22an: 19.45, 22.30
23an: 20.00
24an: 20.30
25ean: 20.00



"Contagio"
Zuzendaria: **Steven Soderbergh**
Aktoreak: **Marion Cotillard, Matt Damon, Jude Law**

21ean: 22.30
22an: 22.30
23an: 20.00
24an: 20.30

HILDAKOAK

- Pakita Garate Gandiaga. 86 urte. 2011-X-13.
- Miren Salvador Soloaga. 88 urte. 2011-X-14.
- María Magunazelaia Barañano. 91 urte. 2011-X-15.
- Fidel Zamakola Zubia. 87 urte. 2011-X-16.
- Isabel Berrizbeitia Urien. 87 urte. 2011-X-18.
- Epifanio Jiménez Martín. 84 urte. 2011-X-18.
- Juan Manuel Zabala Zendoia. 60 urte. 2011-X-19.

JAOTAKOAK

- Aitana Hernández Cordón. 2011-X-12.
- Salma Erraihani Etxaburu. 2011-X-13.
- June Azkarate Vallés. 2011-X-15.
- Mikel Aristondo López. 2011-X-16.

horoskopoa

ARIES

Itxura ez da dena eta barrenera begiratu beharko zenuke. Horrela ezagutuko duzu pertsona hori, ezustekoa hartu aurretik.

TAURUS

Inor mintzen ez duzun bitartean, nahi duzuna egin dezakezu. Zuk horrela nahi baduzu, aurrera; baina gero atzera egitea asko kostatuko zaizu.

GEMINI

Sinestezina bazaizu ere, zorte handia izango duzu asteburuan. Gauza harrigarriak, bata bestea baino hobeak gertatuko zaizkizu.

CANCER

Laga azazkalak bakean, azala besterik ez zaizu geratuko bestela denbora gutxian. Urduri zaude? Aste honetan lasaitzeko aukera izango duzu.

LEO

Tartetxoa aterako duzu zure gauzak ordenatu eta behar ez dituzun horiek zakarrontzira botatzeko. Kupidarik ez. Aurrera begiratu behar duzu.

VIRGO

Zure susmoak bete egingo dira eta, orain bai, orain denetarik esan diezaiokezu, barruan hainbeste denboran gordeta izan duzun horri.

LIBRA

Goizak oso gogorak egingo zaizkizu. Gauetan lo gaizki egingo duzulako izango da hori: asko kostatuko zaizu loak hartzea. Zer darabilzu buruan?

SCORPIUS

Martitzena kenduta, aste paregabea pasatuko duzu. Martitzenean zer? Oso gustoko ez duzun batekin egingo duzu topo eta haserre izango zara.

SAGITTARIUS

Azkenean. Bazen ordua! Amaituko duzu hainbeste denboran lana eman dizun hori. Baina gero hutsunea somatuko duzu. Zerekin bete?

CAPRICORNIUS

Arazoa non dagoen jakingo duzu, baina orain zailena geratzen zaizu: hori konpontzea. Zergatik ez laguntza eskatu? Hobe bakarrik ekitea baino!

AQUARIUS

Dantza eta jairako gogoia izango duzu, baina konpainiarik ez. Ea norbait konbentzitzen duzun eta gogo horiek asetzeko gai zaren.

PISCIS

Beti eskean zabilta, baina zer egiten duzu zuk besteen alde? Jakin beharko zenuke eskuzabalagoa izaten eta besteei gutxiago eskatzen.

Barixakua 21**HIP-HOP GAUA**

00.00.- Rap kontzertua: "El fuego y la palabra". Ondoren, old school musika. Karrika tabernan.

**Zapatua 22****DANTZA MARATOIA**

11.30.- Bularreko minbiziaren kontrako dantza maratokia. El Corte Inglés-ean (atari nagusian).

GERNIKAKO AKORDIOA

16.00.- "Herritarrok ere konponbidea nahi dugu" lemari jarraituta Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Gaietik.

XIX. MUSIKALDIA

19.00.- KUP taldea (Euskal Herria). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

DJ GAUA

22.30.- Chill out musika, Bergarako "Kogollo Party Crew" kolektiboko DJ-ekin. Karrika tabernan.

Domeka 23**KULTUR ARTEKO TOPAKETA**

10.30.- Kultur Arteko Topaketa Eibar-Ermua. Eibarko erakunde sozialei ongietorria egiteko ekitaldia. Untzagan.
11.00.- Kalejira erreibindikatiboaren hasiera (Eibar-Ermua).
12.30.- Ermuko erakunde sozialei ongietorria eta manifestuaren irakurketa.
13.00.- Herri-bazkaria. San Pelaio plazan (Ermuan).

AURKEZPENA

19.00.- "Biodiskografiak" Iban Zalduaren liburuaren aurkezpen musikatua, Xabier Montoia eta Ibon RG musikariaren parte-hartzearekin. Karrika tabernan.

**Martitzena 25****XIX. MUSIKALDIA**


20.30.- Orey (Ukrainia Zhitomir). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Eguaztena 26**IKASTEN**

11.00.- Kafe-tertulia. Ikasurtearen aurkezpena eta so-lasaldietarako gaiak aukeratzeko. Klub Deportiboan.

XIX. MUSIKALDIA

20.30.- Latvian Youth Choir Balsis (Letonia). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

**Eguena 27****IKASTEN**

10.00.- "Las luchas de los banderizos vascos (parientes mayores)", Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

EGOIBAR ZINEKLUBA

17.30 eta 21.00.- "Neds" (Zuz: Peter Mullan). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. S. Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

– **Dendarientzat.**

"Inteligentzia emozionala eta estresaren kudeaketa" (urriak 26tik azaroak 8ra), "Sare sozialen abantailak" (azaroak 2tik 11ra) eta "Salmentarako teknikak eta bezeroari arreta" (azaroak 14tik 23ra). Izen-ematea eta informazioa: 943207694 telefonoan (Leire Goenaga) edo empleo@fmg.es helbidean. Doan.


– **"Modaren sekretuak: tendentziak eta aholkuak".**

Noiz eta non: Azaroak 3, 10, 17 eta 24an, 18.30etan, ...eta kitto!-n.

Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 17tik 28ra, ...eta kito! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartera, 943200918 telefonoan). 10 euro bazkide eta berbalagunentzat, 12 euro besteentzat.

– **"Komunikazioa Elkarteetan. Ba al dakigu komunikatzen?".**

Norentzat: 2011ko boluntarioak eta irabazi asmorik gabeko elkarteetako kideentzako. Noiz eta non: Azaroak 8, 15, 17 eta 18, 17.30etatik 20.30etara Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Pegoran.



erakusketak

- Urriaren 23ra arte
PAGATXA emakume taldekoen erakusketa. *Topalekuan.*
- Urriaren 30era arte
EUSKAL AKUARELARIEN ELKARTEAren erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
- Urriaren 31ra arte
J.R. SAN JOSEren argazki erakusketa. *Deport tabernan.*
- EINER RODRIGUEZ PONCE**ren "Arquitectura Medieval" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- BAKARNE ELEJALDE**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- Azaroaren 18ra arte
JOSE LUIS IRIGOIENen "Jordania" argazki erakusketa. *Doherty's tabernan (San Prudentzio, óan, Matienan).*
- Azaroaren 23ra arte
"MEDUELELAVIDA" RUBENen erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

lehiaketak

- **San Andres Bertso-Paper Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Azaroaren 7ra arte, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarte).

diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara 2011 eta Dirulaguntzak Ikasleei 2011.**
Eskarak aurkezteko epea: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

farmaziak

- 21, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 22, zapatua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 123, domeka**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 24, astelehena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 25, martitzena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 26, eguaztena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 27, eguena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 28, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRULEÑA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRULEÑA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	9		1	8		7	
5			9	7			1
			5				
1	3					5	6
		8			1		
7	6					9	8
			9				
2			6	1			7
	4		7	3		2	

DENBORAPASAK

6	5	7	8	9	1	3	4	2
4	2	1	5	3	7	0	6	9
9	8	3	6	4	2	7	5	1
2	4	9	0	7	6	5	1	8
1	3	5	9	2	8	0	7	4
7	0	0	4	1	0	2	9	3
0	9	0	2	5	4	1	0	7
3	1	2	7	6	0	4	6	5
5	7	4	1	8	3	0	2	0

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai Eibarko erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igozailua. Guztiz berritua eta argitsua. 126 m². Tel. 626-203838.

– Eibarren pisua salgai. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi, garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dago. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

– Pisua salgai Soruluzen. 3 logela. 70 m² + ganbara + garajea (itxita, pegora aldamenean, 15 m²). 189.000 euro. Altzariek eta egoe-ronean. Sartzeko moduan. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Erdetik 5 minutura. Tel. 696-658413 eta 626-666919.

1.2. Errentan

– Etxebizitza alokagai Ermuan. 2 logela. Igozailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 649-313548 eta 943-201933.

– Amañan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Bista Eder inguruan. Tel. 688-618959.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Asua-Errekan garajea alokagai. Itxia. Tel. 616-959625.

– Urkizu inguruan garajea alokagai. Marraduna. Tel. 639-632172 eta 943-127104.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 647-184785.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-889465 eta 943-127400.

– Neska eskaintzen da nagusiak gaeuz zaintzeko eta garbiketarako egunez egiteko. Tel. 651-836353.

– Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko (esperientzia) edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-972733.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.

– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informeak. Tel. 637-276278.

– Geriatria-laguntzailea den neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-932443.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 664-111706.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-431590.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 648-196773.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko orduka. Esperientzia. Tel. 690-925929.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko, gaeuz zein orduka. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923 eta 943-176528.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 609-148861 eta 943-257815.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 608-376387.

– Kamarera eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 692-332871. – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-243694.

– 40 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 633-150376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-555040.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gaeuz ere. Tel. 682-934865.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gaeuz ere. Tel. 682-553224.

– Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaindu, garbiketarako lanak egin, baserrian jardun... Tel. 630-031218.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta besteen oporretan euren ordezkari jarduteko. Tel. 657-396018.

– Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 610-017571.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 673-436363.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da nagusia zaintzeko. Interna. Tel. 630-690317.

– Ileapaindegi batean 1. ofizial mailakoa behar dute, esperientziarekin. Tel. 943-254512 eta 637-528992.

– Laguntzailea behar da Ermuko hortz-klinika batean. Astean 11 ordu. Deitu 18.00etatik 20.00etara. Tel. 615-724810.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Ingeles irakaslea behar da. Bertakoa edo maila altua duena. Tel. 943-176632.

5.2. Eskaintzak

– Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da arratsaldez klase partikularrik emateko. Tel. 677-633754.

– Ingeniari kimikoak klase partikularrik emango lituzke. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

– Euskarazko klaseak ematen dituzten azterketak prestatzeko: EGA, hizkuntz eskakizunak... Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Arropa-lehorgailua salgai. Balay markakoa. 50x65x44. 200 euro. Tel. 626-144098.

– Umearentzako kotxe-kapota salgai. Silver-Cross urdina. Egoera onean. Tel. 620-642654.

Kultö:



Zuloagatarren, 3

Tel. 943 20 84 39

ESKERRIK ASKO GUZTIO!!!!



17 URTE

eibartarren zerbitzura



Xarma



bereziarekin!

2012ko **Gida** prestatzen dihardugu...



- Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak •
- Argazkideak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arraindegiak
- Aseguruak • Asesorak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak
- Bidalak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego fresneria
- Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkarteak •
- Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankook • Este-
fika • Farmaziak • Ferreteriak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-
riak • Garagardotegiak • Garraloak • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozo-
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Haurzaindegiak • Euskaltegiak •
- Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegiak • Industria Informa-
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janariendak • Jarzindendak •
- Jatetxeak • Jostailudendak • Kafetegiak • Kalejardura • Klotendak • Kri-
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Kondeitorak • Konstruk-
zioa • Kristaldegia • Leioak • Lintzeak • Ibratzenak • Loradendak •
- Makina saltzaileak • Marrazketa • Marrazketa • Mekanika • Medikuntza • Ana-
lisi klinikoak • Derrabioak • Mekanika • Mekanika • Mekanika • Mekanika •
- Fisioterapiak • Logopediak • Meteorologoak • Otorrinoak • Podologoak •
- Psikiatriak • Psikologoak • Terzeriak • Nofarriak • Oinetakoak • Okinde-
giak • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Pizzeriak • Plastikoa •
- Prentsa aldizkariak • Publizitatea • Sindikatua • Sofak • Sukaldeak •
- Tabernak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak •
- Tegiak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak • Tatuak •
- Teknikak • Aroztegiak • Aroztegiak • Aroztegiak • Aroztegiak • Aroztegiak •

zure aukera bakarra!

DEITU.. 943 20 67 76
943 20 09 18

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK